



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**OSTALARITZAKO ETA JOLAS
JARDUERETARAKO ESTABLEZIMENDUEN
EZARPENA ETA JARDUERA ARAUTZEKO
UDAL ORDENANTZA**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA	AMBITO DE APLICACIÓNAPLIKAZIO EREMUA	3
1. ARTIKULUA	Ordenantzak barruan hartzen dituen jarduerak	3
2. ARTIKULUA	Ordutegiak	5
3. ARTIKULUA	Kokatzeko eremuak	6
II. KAPITULUA	JARDUERAREN KOKALEKUA	7
4. ARTIKULUA	Kokalekua eraikinean	7
5. ARTIKULUA	Kokalekuari lotutako baldintzak eta erabilera- mugak landa-eremuetan eta eremu industrialetan	8
6. ARTIKULUA	Establezimenduen tamaina eta forma	9
III. KAPITULUA	ESTABLEZIMENDUEN EKIPAMENDUA	11
7. ARTIKULUA	Sukaldeak	11
8. ARTIKULUA	Komunak	11
9. ARTIKULUA	Hondakin solidoak	13
10. ARTIKULUA	Biltegia	13
11. ARTIKULUA	Beste areto batzuk	14
IV. KAPITULUA	SEGURTASUN BALDINTZAK	15
12. ARTIKULUA	Segurtasun-baldintza orokorrak	15
13. ARTIKULUA	Argiak	15
V. KAPITULUA	aireztapen baldintzak	16
14. ARTIKULUA	Aireztapen-baldintzak. Publikoa egoten den eremuak	16
15. ARTIKULUA	Komunak eta aldagelak	17
16. ARTIKULUA	Zabor-gelak	17
17. ARTIKULUA	Sukaldeak	17
VI. KAPITULUA	ETXEKO UR BEROAREN BALDINTZAK	18
18. ARTIKULUA	Etxeko ur beroaren baldintza orokorrak	18



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

VII. KAPITULUA BALDINTZA AKUSTIKOAK ETA INTSONORIZAZIOARI LOTUTAKOAK 19

19. ARTIKULUA	Soinu-maila.	19
20. ARTIKULUA	Zarata-maila jardueraren kanpoaldean	21
21. ARTIKULUA	Aire-zaratarako eta inpaktuen zaratarako isolamendua aldameneko lokalen artean	22
22. ARTIKULUA	Aldameneko lokaletara zarata transmititzen duten jardueren mugako balioak betetzen direla egiaztatzea.....	23
23. ARTIKULUA	Ekipamendu mugatzailea/erregistratzailea	24

VIII. KAPITULUA ARAUBIDE JURIDIKOA 26

24. ARTIKULUA	Instalazio berrietarako dokumentazioa	26
25. ARTIKULUA	Lizentziak aitortzea	28
26. ARTIKULUA	Lizentzien titulartasuna aldatzea.....	28
27. ARTIKULUA	Betetzea eta egiaztatzea	29
28. ARTIKULUA	Tolerantzia-araubidea	30
29. ARTIKULUA	Iraungitasuna eta luzapenak.....	30
30. ARTIKULUA	Zehapen-araubidea.....	31

XEDAPEN GEHIGARRIAK 31



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Ikuskizunek eta jolas-jarduerak hain eragin handia dute herrien ohituretan eta hainbeste islatzen dute euren nortasuna eze, herriak handitu edo narriatu ahala, bertako ikuskizunek pareko bideari jarraitzen diote.

Horregatik, jendaurreko ikuskizunak eta antzerako jolas-jarduerak arautzeko interes berezia adierazi du beti administrazio publikoak. Administrazioaren interes hori handiagotu egin da, gainera, ikuskizunek eta gainerako jolas publikoek erakarritako herritarren kopurua handituz joan den heinean. Gaur egun, erakunde publikoen arretagune nagusietako bat dira jendaurreko ikuskizunetarako eta aisiarako lokalak, kontuan hartuta halako emanaldiek era guztietako jende kopuru handia bertaratzea eta instalazio teknikoan alboan batzea dakartela. Hala, halakoak antolatu eta ospatzen direnean, gizartean eragin argia duten alderdi eta balorazioak azaleratzen dira, eta horien guztien artean pertsonen eta ondasunen segurtasunari lotutakoak lehenetsi beharra dago.

Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerak erlazio estua dute segurtasunarekin; izan ere, lokal itxietan egiten dira eta, normalean, ekipamendu elektriko eta elektronikoak edo/eta ostalaritzari lotutako makineria industrialak erabiltzea eskatzen dute. Horiek guztiak arrisku-iturri dira, zuzenean erabiltzeaz arduratzen direnentzat ez ezik, ikuskizuna joan diren guztientzat ere.

Horiek horrela, jendaurreko ikuskizunak antolatzen direnean administrazioak ezin du ezikusiarena egin eta, aitzitik, Jendaurreko Ikuskizunetarako Polizia esaten zaion horren parte den arautegia xedatu du, zorrotz arautzeko segurtasunari —suterik gertatuz gero segurtasunari eta ebakuazioari lotutako kontuak, adibidez—, erabilerari eta irisgarritasunari lotutako alderdiak, besteak beste.

Beste alde batetik, halako gertaeren inguruan sortzen diren balioek (aisiaren erabilera egokiak, herri-segurtasunak, adingabeen hezkuntza eta beste batzuek) eragin zuzena dute udalerrian eta, hartara, horiek guztiak herritarren mesedetan



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

babesteko helburuak Udalaren ekintza legitimatu ez ezik, beraren jarduna behartu ere egiten du.

Gure udalerrian ukaezina da ostalaritzako eta jolas-jardueretarako establezimenduak larregi ugaltu direla; bereziki, taberna bereziaren, kafe-antzokiaren eta abarren kalifikazioa eskatzen duten establezimenduak. Izan ere, kalifikazio hori eskuratzeko helburu bakarra lokala ixteko ordutegi zabalagoa eskuratzea izaten da, eta gerora ez zaie lortutako kalifikazioari dagozkion beste baldintzei kasurik egiten.

Agerikoa da, halaber, halako establezimenduen jarduera ez bada arautegi tekniko-juridiko egokiaren menpe ipintzen, interes-gatazka gerta daitekeela (eta gertatu ere egiten dela), alde batetik negozioaren titularraren interesa, eta beste alde batetik interes publiko orokorra (zehazki, establezimendu horietatik hurre bizi diren herritarren intimitaterako eta segurtasunerako eskubidea, lokalaren zaratek euren lasaitasuna urratzen dutelako).

Ondorio horietarako, ezinbestekoa da tokiko administrazioak esparru horretan jorratuko duen ekintza bideratzeko arau egokiak zehaztea. Hain zuzen ere, horixe da ostalaritzako eta jolas-jardueretarako establezimenduen ezarpena eta jarduera arautzeko udal-ordenantza honen helburua.

Jarduera horien definizioa zehazteko, Eusko Jaurlaritzaren 171/1985 Dekretua hartu dugu oinarritzat. Definizio horren asmoa zera da: ahalik eta zehatzen deskribatzea jarduera horri eskatuko zaizkion betebeharrak nagusiak, zaraten, bibrazioen, ordutegien eta abarren alorrean.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

I. KAPITULUA APLIKAZIO EREMUA

1. ARTIKULUA Ordenantzak barruan hartzen dituen jarduerak

Honako kontzeptu hauek kontuan hartuta zerrendatuko ditugu jarduerak:

- Jarduera mota.
- Berezko zarata-iturriak.
- Zarata-igorpenaren muga, baldin eta ezarri behar bada.
- Jardueraren ordutegia.
- Publikoa jardueran sartzeko beharraren aurreikuspena.

Planteamendu orokor horren arabera, honako talde hauetan sailkatuko dira ostalaritzako, jolas-jardueretarako eta antzeko jardueretarako establezimenduak, lokalak eta instalazio iraunkorrak:

I. TALDEA:

Berariaz adingabeentzat baimendutako lokal eta instalazioak, alkoholik gabeko edariak eta jatetxe-jarduera ez dakarten elikagaiak saltzeko baimenarekin. Besteak beste:

Gazteentzako dantzaleku eta jai-lekuak, gazteentzako diskotekak, dastategiak, izoztegiak, txokolategiak, txurro-dendak, croissant-dendak, te-aretoak eta horien parekoak.

Talde honetan sartzan dira, salbuespen modura, 14-17 urte bitarteko gazteen lokalak; alabaina, halako lokalek ezin dute eduki sukalderik, frijigailurik, plantxarik eta erregailurik, eta ez dute baimenduta, halaber, musika-aparaturik ezartzea.

Ez dute baimenduta musika-aparatu estereofonikorik ipintzea. Sukaldea, frijigailuak, plantxak eta erregailuak eduki ditzakete.

- i. Ordutegia 36/2012 Dekretuak xedatutakoari lotuko zaio.
- ii. Zarata-igorpenaren muga: 75dB(A)

Talde honetan sartu ahalko dira ordenantza hau indarrean sartu aurretik alkohola saltzeko eta jatetxe-jarduerak egiteko lizentzia eta baimena eskuratua zuten lokal eta instalazioak, ordenantza honen VII. kapituluaren zehaztutako baldintza akustikoak eta intsonorizazio-baldintzak betetzen



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

ez dituztenak. Gainerako puntu guztiak (I. kategoriari dagozkion ordutegiak eta zarata-igorpenen mugak) bete egin beharko dituzte, ordea.

II. TALDEA:

Edari alkoholdunak saltzeko eta jatetxe-jarduerak egiteko baimena duten lokalak eta instalazioak. Besteak beste:

Ardandegiak, upategiak, tabernak, taberna-kafeak, snackak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, janari-etxeak, txokoak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak eta horien parekoak.

Talde honetan sartzen dira, salbuespen modura, 18-25 urte bitarteko gazteen lokalak; alabaina, halako lokalek ezin dute eduki sukaldarik, frijigailurik, plantxarik eta erregailurik, eta ez dute baimenduta, halaber, musika-aparaturik ezartzea.

Baimenduta dago musika-aparatu estereofonikoak ipintzea, eta sukaldea, frijigailuak, plantxak eta erregailuak ipintzea.

- i. Ordutegia, 36/2012 Dekretuak xedatutakoarekin bat.
- ii. Zarata-igorpenaren muga: 85dB(A)

III. TALDEA:

Jarduera berezi bezala, dantzatzeko pistarik gabe musika edukitzeko baimena duten lokal eta instalazioak. Besteak beste:

Taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, taberna amerikarrak, pubak, disko-tabernak, karaokeak eta horien parekoak.

Hona halakoen ordutegia eta zarata-igorpenaren gehienezko balioa:

- i. Ordutegia 36/2012 Dekretuak xedatutakoari lotuko zaio.
- ii. Zarata-igorpenaren muga: 90dB(A)

IV. TALDEA: Diskoteka

Musika eta dantzatzeko pista edukitzeko eta ikuskizunak egiteko baimena duten lokal eta instalazioak. Besteak beste:

Jai-aretoak, dantzalekuak, diskotekak, kafe-antzokiak, ikuskizunak ematen dituzten jatetxeak, areto zinematografikoak eta antzokiak, bingoak, kasinoak, joko-aretoak eta horien parekoak.

Hona halakoen ordutegia eta zarata-igorpenaren gehienezko balioa:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

- i. Ordutegia 36/2012 Dekretuak xedatutakoari lotuko zaio.
- ii. Zarata-igorpenaren muga: 95dB(A)

2. ARTIKULUA Ordutegiak

1. 296/1997 Dekretua eta ondorengo aldaketak (ikusi 36/2012 Dekretua) oinarri hartuta arautuko dira ordutegiak. Dena dela, hona hemen ordutegien laburpena, bakoitzaren jarduera aintzat hartuta:

I. TALDEKO jarduerak:	23:00ak arte
II. TALDEKO jarduerak:	01:00a arte
III. TALDEKO jarduerak:	02:30ak arte
IV. TALDEKO jarduerak:	04:30ak arte

Jolas- eta joko-aretoak edo instalazioak ixteko ordua hauxe izango da, oro har:

Jolas-aretoak:	23:00ak arte
Joko-aretoak:	01:00a arte
Bingo-aretoak:	03:30ak arte
Joko-kasinoak:	04:30ak arte

2. Instalazio eta egitura iraunkorretarako araututako ordutegi berdina edukiko dute aldi baterako instalazioek eta egiturek.
3. Ordutegi bereziak finkatzeko araubide berezia 296/1997 Dekretuan eta hurrengo aldaketetan (ikusi 36/2012 Dekretua) xedatutakoaren arabera arautuko da.
4. Udal agintaritzari dagokio, zerbitzu teknikoen txostena irakurri ondoren, establezimendu jakin bat taldeetakoren batean sailkatzea, partikularrak aurkezturiko proiektuan jasotakoa aintzat hartuta edota, hala badagokio, legeztatu nahi duen jarduera aintzat hartuta.
5. Establezimendua argi eta garbi talde jakin batean sailkatzerik ez badago, zerbitzu teknikoek txostena eman ondoren, beraren jarduerarekin antz handiena duen taldean sartuko da.
6. Establezimenduren bat bi taldetan sailkatzeko aukera badago, zarata-igorpenari eta isolamenduari lotutako araudirik zorrotzena duen taldean kokatuko da.
7. Ordenantza hau instalazio berriak egiten direnean eta dagoeneko abian diren instalazioak handitzen direnean ezarriko da, 22. artikuluan jasotako tolerantziak kontuan hartuta, eta betiere instalazio finkoei lotuta. Horrenbestez, araudi honetatik



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

kanpo geratzen dira, berariaz, aldi baterako eta behin-behineko jarduerak egiteko instalazioak, hala nola ferietako etxolak, zirkoetako eta barraketako kafetegiak eta jatetxeak, data jakin batzuetan antolatzen diren ikuskizunak eta jaiak eta abar. Dena dela, ordenantzatik kanpo utzi diren instalazio horiek udal-baimen egokia jaso beharko dute eta arlo horretako arau orokorrak bete beharko dituzte, batez ere segurtasunari eta higieneari lotutakoak.

8. Araudi honen pean geldituko dira, ordea, beraren eraginpeko jardueretarako egiten diren obrak.
9. Ordenantza honen bidez arautuko dira aurreko ataletan deskribatutako jarduerak, beste jarduera nagusi baten osagarritzat erabiltzen direnak (hoteletako, zinemetako, bingoetako, kirol instalazio itxietako, merkataritza-zentro eta -galerietako, egoitza politiko eta sozialetako... taberna, kafetegi eta jatetxeak).

3. ARTIKULUA Kokatzeko eremuak

1. Ordenantza honen ondorioetarako bakar-bakarrik, honela zonakatzen da udalerria:
 - a) Alde Zaharra: Alde Zaharra Babesteko Plan Berezian (AZBPB) halakotzat zehaztutako eremua.
 - b) Bizitegi-eremua: HAPOak halakotzat jotzen duen eremua, hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarriaren barruan sartuta dagoena, aurreko atalean zehaztutako Alde Zaharreko eremua izan ezik.
 - c) Eremu industrial: HAPOak halakotzat jotzen duena, hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarriaren barruan sartuta dagoena.
 - d) Landa-eremua: gainerako udalerria.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

II. KAPITULUA JARDUERAREN KOKALEKUA

4. ARTIKULUA Kokalekua eraikinean

1. Jarduera horiek eraikinetako beheko solairuetan kokatuko dira, batez ere, baina sotoen eta lehen solairuen bidez osatzeko aukera ere egongo da, baldin eta hurrengo atalean zehartutako baldintzak betetzen badituzte eta, betiere, ezarri beharreko beste Arau eta Ordenantza batzuk betetzeko derrigorri kalterik eragin barik.
2. Honako baldintza hauek bete beharko dira:
 - a) **Beheko solairuan egiten den jarduera izango da nagusia**, eta lehen solairuan edo beheko solairuan egiten den jarduerak beheko solairuko jarduera nagusiaren osagarri izan beharko du.
 - b) **Lehen solairuaren** azalera ez da sekula izango jarduera nagusiari eusten dion beheko solairuaren azalera osoaren **% 70** baino handiagoa. Agerikoa denez, ondorio horretarako ez da solairuarte zenbatuko.
 - c) **Beheko solairuaren** azalera ez da izango sotoko solairuaren azalera osoaren **% 50** baino txikiagoa.
 - d) Sotoa beheko solairuko jarduera nagusiaren osagarritzat erabili ahal izateko, segurtasunari eta baldintza higieniko-sanitarioei lotutako eskakizunak betetzeaz gain, interesdunak egiaztatu egin beharko du, txosten tekniko egoki baten bidez, ezin dela garajetzat/aparkalekutzat erabili eta bi solairuetako jarduerak talde berebanean sartzen direla.
 - e) Osagarritzat erabiltzen diren **sotoen gutxieneko altuera** libre bukatua (dekorazioak eta intsonorizazioak ere barnean sartuta), bi metro eta erdikoa (**2,50 m**) izango da. Dena dela, puntualki instalazio eta dekorazio txikiagoak ere onar litezke, baldin eta altuera librea bi metro eta hogeizentimetro (**2,20 m**) baino txikiagoa ez bada.
 - f) Osagarritzat erabiltzen diren **lehen solairuetako gutxieneko altuera libre bukatua** bi metro eta berrogeita hamar zentimetrokoa (**2,50 m**) izango da, dekorazioak eta intsonorizazioak ere kontuan hartuta.
 - g) Sotoak edo/eta lehen solairuak beheko solairuarekin fisikoki lotuta egon beharko dute, eta ez da eraikineko elementu erkideetatik bertaratzeko



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

aukerarik egongo. Lehen solairuen kasuan, eskailera-kaxatiko jatorrizko sarbidea erabiltzeko aukera egongo da, baina larrialdietarako ebakuazio-bidetzat soilik. Ondorio horretarako, bermatu egin beharko da ez dela ebakuazioaren kontrako norabidean erabiliko eta ez dela eskailera-kutxaren konfigurazio estetikoa aldatuko. Ildo beretik, suaren aurkako EI-120etik gorako erresistentzia (DB-SI EKT ziurtagiriaren arabera) bermatuko da, betiere solairu bakoitzean aurreikusten den jende kopuruaren arabera beharrezkoak diren ebakuazio-neurriak beteko direla ziurtatuta, unean-unean indarrean dagoen Polizia eta Ikuskizunen Araudiari eta Eraikingintzaren Kode Teknikoari jarraikiz.

3. **Beheko solairuetako** gutxieneko **altuera** libre bukatua bi metro eta berrogeita hamar zentimetrokoa (**2,50 m**) izango da, dekorazioak eta intsonorizazioak ere kontuan hartuta.
4. Komunetan, biltegietan eta langileek eta publikoak etengabe erabiltzen ez dituzten beste geletan, gutxieneko altuera librea txikiagoa izan ahalko da: bi metro eta hogeitazentimetrokoa (**2,20 m**), hain zuzen.

5. ARTIKULUA Kokalekuari lotutako baldintzak eta erabilera-mugak landa-eremuetan eta eremu industrialetan

1. Landa-eremua.

Eremu horretan I. eta II. taldeko jarduerak baimentzen dira, honako muga hauekin:

- a) Jardueraren euskarri fisikoa lehenagotik dagoen eraikina izango da, gutxienez 35 urteko antzinatasuna duena eta antolamendutik kanpo ez dagoena.
- b) Jarduera ezartzeko, eraikina birgaitu egin beharko da, baina ez da onartuko azalera eraikia eta bolumen eraikia handitzerik.

2. Eremu industrial.

Eremu horretan jarduera toleratutzat baimenduko dira talde guztietako jarduerak; hau da, I., II., III. eta IV. taldeetako jarduerak, honako muga hauekin:

- a) Establezimenduaren tamaina eta jarduera mota kontuan hartuta, jendearen joera masiboa egongo dela aurreikusten denean, aurreikusten



den jende multzoari egokitutako aparkalekuen zuzkidura sortzea eskatu ahal izango da.

Aurreko atalen arabera emandako baimenetan, ordea, 26. artikuluan xedatutakoa errespetatu beharko da.

6. ARTIKULUA Establezimenduen tamaina eta forma

Ermuko HAPOn behin betiko onartu (2015/02/25) eta gero eraikitako eraikuntzetan:

1. 100 m² eraiki baino azalera txikiagoa duten jardueretan, gutxienez 3,20 m linealeko fatxada izan beharko dute bidetzat edo erabilera publikoko espazio libretzat kalifikatutako lurzoruetara.
2. 100 m² eraikitik gorako azalera duten jardueren kasuan, gutxienez 3,20 metroko fatxada izan beharko dute bidetzat edo erabilera publikoko espazio libretzat kalifikatutako lurzoruetara, eta 0,4 m gehiago hortik gora eraikitako 25 m² bakoitzeko edo horren frakzio bakoitzeko.
3. Lehen solairuko jarduerak (2. egoera) sestratik beherako solairuan dauden jardueretara (1. egoera) edo lehen solairuan dauden jardueretara (3. egoera) bideratuta badaude, aurretik aipatu berri ditugun 1. eta 2. puntuen arabera arautuko dira fatxadak, kontuan izanda azaleraren ondorioetarako beheko solairukoa gehi gainerakoaren % 25 zenbatu beharko dela.

Ermuko HAPOn behin betiko onartu (2015/02/25) baino lehenago eraikitako eraikuntzetan:

4. 100 m² eraiki baino azalera txikiagoa duten jardueretan, gutxienez 2,00 m linealeko fatxada izan beharko dute bidetzat edo erabilera publikoko espazio libretzat kalifikatutako lurzoruetara.
5. 100 m² eraikitik gorako azalera duten jardueren kasuan, gutxienez 2,00 m linealeko fatxada izan beharko dute bidetzat edo erabilera publikoko espazio libretzat kalifikatutako lurzoruetara, eta 0,4 m gehiago hortik gora eraikitako 25 m² bakoitzeko edo horren frakzio bakoitzeko.
6. Lehen solairuko jarduerak (2. egoera) sestratik beherako solairuan dauden jardueretara (1. egoera) edo lehen solairuan dauden jardueretara (3. egoera) bideratuta badaude, aurretik aipatu berri ditugun 3. eta 4. puntuen arabera



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

arautuko dira fatxadak, kontuan izanda azaleraren ondorioetarako beheko solairukoa eta gainerakoaren % 25 zenbatu beharko dela.

Oin berriko obren kasuan, jarduera edozein taldetan sailkatuta egonda ere, irisgarritasunari buruzko arau teknikoak xedatzen dituen 68/2000 Dekretuan jasotako irizpideak bete beharko dira derrigorrez.

Zaharberritzeko, handitzeko edo/eta aldatzeko obren kasuan, 68/2000 Dekretuaren V. Eranskinean irisgarritasun-neurriei eta -irizpideei buruz zehaztutakoa bete eta justifikatu beharko da.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

III. KAPITULUA ESTABLEZIMENDUEN EKIPAMENDUA

7. ARTIKULUA Sukaldeak

1. Elikagaiak erabiltzen edo biltegitratzen diren lekuetako lurzoruek eta hormek azalera leuna eta iragazgaitza edukiko dute, erraz garbitzeko eta desinfektatzeko modukoa. Beharrezkoa denean, lurzoruek likidorik ez pilatzeko inklinazio egokia ez ezik, beharrezko hustubidea ere izango dute. Sabaiak erraz garbitzeko modukoak izango dira.
2. Argi naturala edo artifiziala egoki babestuta egongo da, apurtuz gero ez ditzan elikagaiak kutsatu.
3. Makineriako materialak eta elikagaiekin kontaktuan dauden azalerak leunak izango dira, ez toxikoak, korrosioari eusteko aproposak eta erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak.
4. Txorrotako ur hotza eta beroa edukiko dute, elikagaiak erabiltzeko eta instalazioak nahiz langileak garbitzeko behar den lain.
5. Aireztapen naturaleko edo artifizialeko sistema edukiko dute, indarrean dagoen araudiarekin bat.
6. Elikagaiak erabiltzeko edo ontziratzeke guneetatik hurre, eskuz aktibatzen ez den konketa egongo da (hau da, pedalaz, belaunaz edo zelula fotoelektrikoak aktibatzen den txorrota duena), ur hotzarekin eta beroarekin, xaboi-dosifikatzailearekin eta erabilera bakarreko eskuoihaekin.
7. Gainera, intsekturik ez egoteko sistema edukiko dute, baina ez sistema kimikoa.

8. ARTIKULUA Komunak

1. Establezimendu publikotzat sailkatutako lokal guztiek komun bereiziak izango dituzte gizonezkoentzat eta andrazkoentzat, eta horietako bakoitzak sarrerako gela edukiko du. Komunetara askatasun osoz sartu ahalko da, inolako mugarik gabe, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzko 10/2015 Legeak zehaztutakoarekin bat.
2. Oro har, establezimendu guztiek bi komun izango dituzte, honako ezaugarri hauekin:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

- a) **2,20 m²** izango dituzte gutxienez, eta alde bakoitzean metro bat (**1,00 m**) gutxienez).
 - b) Altuera libre erabilgarria, lurzorutik sabaira neurtuta, ez da izango bi metro eta hamar zentimetro (**2,10 m**) baino txikiagoa.
3. Ehun metro koadrotik (100 m²) gorako azalera duten establezimenduek komunetarako azalera handitu egingo dute, honako erlazio honen arabera: bi metro eta hogeitazentimetro koadro (2,20 m²) gehiago 100 m²-tik gorako hogeita hamar metro koadroko (30 m²) edo horren frakzio bakoitzeko, bestelako araudi batzuei kalterik eragin gabe.
4. Gizonezkoentzako eta andrazkoentzako komunak proportzionalki banatuko dira; gizonezkoentzako komunen kasuan, erdiak pixatokiak izan daitezke.
5. Gaur egungo eraikin batean dagoen lokala berritu edo aldatzeko obrak eginez gero, eta lokalaren egiturazko ezaugarriak edo forma direla eta, 68/2000 Dekretuan zehaztutako irisgarritasun-irizpideak ezartzeko aukerarik ez badago; edota aurrekontu ekonomikoa dela eta, egokitzapen horrek gehiegizko gastua badakar, honako igarogarritasun-irizpide hauek onartuko dira, aurretiaz egoki justifikatuta:
 - a) Exijitutako zirkulu librea 1,4 m-raino murriztu ahal izango da.
 - b) Ateen pasabiderako zabalera librea 0,80 m-raino murriztu ahal izango da.
 - c) Gizonezkoentzako eta andrazkoentzako komun bakarra egoteko aukera onartu ahal izango da, udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena ematen badute.
6. Komunetarako sarbide zuzena ez da inolaz egongo sukaldean, bulegoan, jantokian, ez eta elikagaiak erabili, prestatu edo biltegiatzen den lekuren batean.
7. Aurretik adierazitakoari kalterik eragin barik, jarduera jakin hori 2816/1982 Dekretuan eta Jendaurreko Ikuskizunetarako eta Jolas Jardueretarako Poliziaren Erregelamenduaren ondorengo berrikuspenetan zehaztutakoen artean badago, Dekretu horren 12. artikuluan komunaren kopuruari, kokapenari eta zuzkidurari buruz ezartzen diren gutxienerako baldintzak bete beharko dira.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Aldagelak:

1. Aldagelak 10 langile edo gehiago baditu, beraiek bakarrik erabiltzeko aldagela bat eduki beharko dute, langile bakoitzeko 2 m²-koa, eta beharrezkoak diren ekipamendu guztiekin, Laneko Segurtasunari eta Higieneari buruz indarrean dagoen araudiak zehaztutakoarekin bat.
2. Artisten ikuskizunak egitea aurreikusten duten lokaletan, gutxienez 5,5 m²-ko azalerako kamerinoak eduki behar dituzte, gehi 2,5 m² artista batetik gora aurreikusten den artista bakoitzeko.
3. Indarrean dagoen araudiak aldagela egokitua ipintzea exijitzen badu, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen 68/2000 Dekretuan zehaztutako baldintzak bete beharko dira.

9. ARTIKULUA Hondakin solidoak

1. 200 m²-ko eta hortik gorako azalera duten lokalek bide ofizialetatik hurre dagoen areto itxi bat edukiko dute, 1.100 litroko edukierako edukiontzi normalizatua gordetzeko ahalmenarekin. 400 m²-tik gorako 100 m² edo frakzio bakoitzeko, edukiera berbera duen beste edukiontzi bat gehituko da.
2. Lokal horrek ere Laneko Segurtasunari eta Higieneari buruzko araudia errespetu beharko du.

10. ARTIKULUA Biltegia

1. Oro har, establezimendu guztiek eduki behar dute biltegitzat erabiltzeko gune itxi bat, kutsadura-iturri posible guztietatik urrun, sukaldetik aparte eta erraz iristeko modukoa. Biltegian edariak bakarrik badaude, lokal nagusitik aparte kokatzea onartuko da, betiere produktua garraiatzean kalean zarata gogaikarririk eragiten ez bada, batez ere gauez.
2. Biltegiko eremuak lokalaren azalera erabilgarriaren % 5etik gorako azalera eduki beharko du.
3. Hotz-katea mantentzea eskatzen duten lehengaiak edo produktuak biltegitratzeko hozkailuak eduki beharko dira, baina lehengai bateraezinak, bitarteko produktuak eta produktu prestatuak bereizteko behar diren beste hozkailurekin eta betiere bolumen nahikoarekin. Hozkailuek 0°C-tik 8°C-ra bitarteko tenperaturak bermatuko



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

dituzte lehengai hoztuen kasuan, eta -18°C -tik beherako tenperaturak lehengai izoztuen kasuan. Betiere tenperatura kanpotik kontrolatzeko aukera emango dute.

11. ARTIKULUA Beste areto batzuk

1. Jarduerak hala eskatzen duenean, honako hauek egiteko lokalen ezaugarriak:

- a. Lehengaiak erabiltzeko eta garbitzeko lokalenak
- b. Tratamendu termikoa ezartzeko lokalenak
- c. Garbitzeko lokalenak
- d. Edukiontzi eta ontzi berrerabilgarri garbiak biltegitratzeko lokalenak
- e. Hondakinak biltegitratzeko lokalenak
- f. Produktu prestatua manipulatzeko lokalenak
- g. Ontziratze lokalenak
- h. Ontziak eta bilgarriak biltegitratzeko lokalenak
- i. Eskaerak bildu eta prestatzeko lokalenak

Osasun Sailaren 3535 AGINDUAK, 2003ko martxoaren 20koak, bete beharreko baldintza sanitarioak zehaztu eta xedatzen dituenak, jasotzen duena bete beharko dute.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

IV. KAPITULUA SEGURTASUN BALDINTZAK

12. ARTIKULUA Segurtasun-baldintza orokorrak

1. Jarduera edozein taldetan sailkatuta dagoela ere, derrigorrez bete beharko ditu DB-SI Eraikingintzaren Kode Teknikoa (EKT) eta DB-SUA Eraikingintzaren Kode Teknikoa, bai eta Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretako Poliziaren Erregelamendu Nagusia eta jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak zehazten dituen Eusko Jaurlaritzaren 296/1997 Dekretua eta haren aldakuntzak (210/1998 Dekretua, 36/2012 Dekretua eta 14/2014 Dekretua) ere.

13. ARTIKULUA Argiak

1. Ordenantza honetan sartzen diren lokalen (berdin dio zein taldetan sailkatuta dauden) instalazio elektrikoei dagokienez, oro har derrigorrez bete beharko da Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa eta osagarritzko jarraibide teknikoak arautzen dituen 842/2002 Errege Dekretua. Bereziki azpimarratzen dugu lokal barruko argitasun-maila eta, zehazki, lokala diseinatzean gune ilunik ez egoteko kontu egitea. Hala, lurzorua eta bi metroko (2 m) altuera bitartean dauden puntu guztiek hamar (10) luxeko argitasun-maila eduki beharko dute gutxienez.
2. Argiteria arruntetik aparte, establezimenduek larrialdiko argiteria eta seinaleztapen-argiak izango dituzte irteerarako bidean dauden ate guztien goiko aldean, eskaileretan, pasilloetan eta atondoetan. Gainera, lokaleko eskailera-maila guztietan larrialdiko argiteriari lotutako seinaleztapen-pilotuak ipini beharko dira, indarrean dagoen araudiarekin bat.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

V. KAPITULUA AIREZTAPEN BALDINTZAK

14. ARTIKULUA Aireztapen-baldintzak. Publikoa egoten den eremuak.

1. Jarduera berri guztietan eta gaur egungo lokalen instalazio termikoa berritzea dakarten obra guztietan Eraikuntzetako instalazio termikoen erregelamendua bete beharko da, dagozkion atal guztietan.
2. Instalazio termikoaren berrikuntzatzat joko dira instalazioan egiten diren lan guztiak, honako hauek aldatzea dakartenak:
 - a. Aire-girotzeko edo etxeko ur beroa sortzeko azpisistemak ipintzea, edo gaur egun daudenak aldatzea.
 - b. Bero- edo hotz-sorgailua aldatzea edo birjartzea.
 - c. Bero- edo hotz-sorgailuen kopurua handitzea.
 - d. Erabiltzen den energia mota aldatzea edota energia berriztagarriak ipintzea.
 - e. Lokalerako aurreikusitako erabilera aldatzea.
3. Barneko airearen kalitatea bermatzeko, eraikuntzetako instalazio termikoen erregelamenduak aireztatzeari eta ordu bakoitzeko aire-berritzeari buruz dioena bete beharko da. Hala, aire-kalitatearen kategoria zehaztu eta, horren arabera, aireztapenean kanpotik ekarritako airearen gutxieneko emaria finkatuko da. Gutxienez $8\text{dm}^3/\text{sg}$ -koa izango da pertsona bakoitzeko; hau da, jatetxeetan, kafetegietan, tabernetan, jai-aretoetan, zinemetan, antzokietan eta abarretan ohikoa den ID3 neurriaren parekoa, eta betiere auzokideei zaraten edo bibrazioen ondoriozko eragozpenik eragin gabe.
4. Publikoarentzako eremuaren azalera ehun eta berrogeita hamar metro koadrokoa (150 m^2) edo handiagoa bada, eraikinaren hegaletik bi metro gorago egon beharko du aireztapenaren hustubideak.
5. 150 m^2 baino gutxiago dituzten lokalen kasuan, lokalaren aireztapenaren bidez irteten den airearen hustubideak kanpoko lurzorutik 2,20 m-ra egon beharko du gutxienez, eta 45 graduko inklinazioa duen sareta bat eduki beharko du airea gorantz botatzeko. Gainera, kanporatutako aireak usainik edo zikinkeriarik ez sortzeko bitartekoak (karbono-iragazkiak edo beste) eduki beharko ditu. Teknikari gaitu batek emandako ziurtagiri baten bidez justifikatu beharko da hori guztia.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

6. Aireztapenerako kanpotik hartzen den airea egoki iragazi beharko da. Gutxienez erabili beharreko iragazpen motak zehazteko, kanpoko airearen kalitatea (ODA) eta barneko airearen kalitatea (IDA) hartuko dira aintzat.

15. ARTIKULUA Komunak eta aldagelak

1. Komunek aireztapen naturala edo artifiziala edukiko dute, kanporako iteera batekin.
2. Komunek eta aldagelek aireztapen-sistema iraunkorrik ez badute, argiaren etengailuari ematean jarriko da abian, edota komuneko zisternako ura deskargatzeko mekanismoari ematean, bestela.

16. ARTIKULUA Zabor-gelak.

1. Airea kanporatzeko aireztapen artifiziala edukiko dute, usainik, zaratarik eta eragozpenik atera barik. Hori bermatzeko, ainguratze-sistema egokia eta airea kanporatu aurretik usainak metatzea galarazteko arazpen-ekipamendua eduki beharko dute.

17. ARTIKULUA Sukaldeak

1. Sukalderako eremua 4 m² baino txikiagoa bada, 5.000 Wtik beherako potentzia duen mikrouhin-bidezko plater-berogailua ezartzea baimenduko da, baina debekatuta egongo da frijigailuak, plantxak eta erregailuak ipintzea. Gainera, derrigorrez ipini beharko dute gasak iragazteko elementu bat duen kanpaia. Gasak jendartea dabilen lokalera kanporatuko dira, behar bezala iragazi ondoren.
2. Frijigailua, plantxa, erregailua eta abar dituzten 4 m²-tik gorako sukaldeetan, hodi eskusibo baten bidez egingo da aireztapena eta haren bidez kanporatuko dira kea eta gasak. Erakarpen- eta kanporatze-sistema egokiak erabiliko dira, eta eraikinaren hegaletik bi metro gorago kanporatuko dira, betiere usainik, zaratarik eta bibraziorik ez eragiteko kontu eginez.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

VI. KAPITULUA ETXEKO UR BEROAREN BALDINTZAK

18. ARTIKULUA Etxeko ur beroaren baldintza orokorrak

1. Etxeko ur beroari dagokionez, indarrean dagoen legeria higieniko-sanitarioa ez ezik, legionelosi prebenitu eta kontrolatzeko araudia ere errespetatuko da.
2. Indarrean dagoen legeriak arautzen ez dituen kontuetarako, etxeko ur beroa erabiltzeko tenperatura egokian ekoitziko da, hoditeria-sarean gertatu ohi diren galderak kontuan hartuta.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

VII. KAPITULUA BALDINTZA AKUSTIKOAK ETA INTSONORIZAZIOARI LOTUTAKOAK

19. ARTIKULUA Soinu-maila.

1. Lokalek euren ezaugarriei egokitutako **intsonorizazio-proiektua** aurkeztu beharko dute. Hala, datozen ataletan zehaztuko diren gehienezko zarata-mailak ez gainditzeko eta inguruko erabileratara transmititzen den soinua araudian xedatutako mugetara lotzeko isolamendu akustiko egokia eduki beharko dute.
2. Jarduera abian jarri aurretik, eta zerbitzu teknikoek beharrezkotzat jotzen badute, «in situ» egiaztatuko dira soinu-mailak.
3. Lokalean intsonorizazio-lanak burutu ondoren, tekniko gaitu batek edota intsonorizazioaz arduratzen den erakundeak sinatutako Isolamendu Akustikoaren Ziurtagiria aurkeztu beharko du establezimenduaren titularrak. Ziurtagiri horretan honako parametro hauek agertu beharko dira, gutxienez:
 - a. Lokalaren barnealdeko lekurik txarrenaren eta kanpoaldearen arteko aireko zaratarako isolamendu akustikoa, dBa-tan neurtuta, eguneko zarata-indizearen arabera.
 - b. Erabilitako materialek zortzidun bandetan duten isolamendua.
 - c. Itxitura bertikaletan: kasurik txarrenetako erabilera-unitateen arteko isolamendua, bai aire-zaratarena, bai inpaktuen zaratarena, kasuan-kasuan. Horren justifikazioak egoera guztiak hartu beharko ditu aintzat: lokal babestuaren eta babestuaren arteko banaketa, lokal babestuaren eta bizigarriaren arteko banaketa, lokal bizigarriaren eta bizigarriaren arteko banaketa, eta instalazioetarako gelen eta beste jarduera-areto batzuen arteko banaketa.
 - d. Aurreko puntuan adierazitako parametro berberen justifikazioa, baina itxitura horizontalei dagokienez.
 - e. Erreberberazio-denboraren mugako balioen eta jangeletan eta jatetxeetan hartutako neurri zuzentzaileen justifikazioa, $T < 0,9$ sg balioa oinarri hartuta.
 - f. Ipinitako musika-ekipamenduaren eta jardueran dauden beste zarata-iturri batzuen deskribapena, ikus-entzunezko ekipamenduen gehienezko igorpen-balioak adierazita.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

- g. Makineriaren eta instalazioen igorpenen eta transmisioen baldintza akustikoak.
 - h. Jarduerako lokaleko ateak irekitzeko baldintzak (ate bikoitza ezartzeko derrigorra egon liteke, 171/1985 Dekretuaren arabera).
 - i. Zamaletarako jarduerarako baldintzak.
 - j. Era berean, ekipamendu mugatzaileen eta erregistratzaileen ezaugarriak ere zehaztu behar dira, ordenantza honen 24. artikuluan jasotakoa zorrotz betetzen dela egiaztatuz.
4. 213/2012 Dekretuak aldameneko lokaletara transmititzen den zarataren mugako balioak eta gehieneko balioak zehazten ditu, eta zehaztu egiten ditu, halaber, jarduera berrietan ezarri beharreko gutxieneko isolamendu akustikoa, aldameneko lokaletara zarata igortzen dutenean. Hona hemen laburpena:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1. TAULA

Jarduera berriek aldameneko lokaletara igortzen duten zarataren muga-balioak				
ALDAMENEO LOKALAREN ERABILERA	ESPARRU MOTA	ZARATA INDIZEAK		
		Lkd	Lke	Lkn
Bizitegia	Egoteko gunek	40	40	30
	Logelak	35	35	25
Administrazioa eta bulegoak	Bulego profesionalak	35	35	35
	Bulegoak	40	40	40
Osasun-alorra	Egoteko gunek	40	40	30
	Logelak	35	35	25
Hezkuntza- edo kultura-alorra	Ikasgelak	35	35	35
	Irakurtzeko gelak	30	30	30

2. TAULA

Jarduera berriek aldameneko lokaletara igortzen duten zarataren gehieneko muga-balioak				
ALDAMENEO LOKALAREN ERABILERA	ESPARRU MOTA	ZARATA INDIZEAK		
		Lkd	Lke	Lkn
Bizitegia	Egoteko gunek	50	50	40
	Logelak	45	45	35
Administrazioa eta bulegoak	Bulego profesionalak	45	45	45
	Bulegoak	45	45	45
Osasun-alorra	Egoteko gunek	50	50	50
	Logelak	45	45	35
Hezkuntza- eta kultura-alorra	Ikasgela	45	45	45
	Irakurtzeko gelak	40	40	40

- Jarduera guztiek ezarri behar dituzte aurreko atalean edo indarrean dagoen araudian (bietatik zorrotzena) zehaztutako muga-balioak eta kalitate-helbururako balioak betetzeko neurriak.
- Aldameneko lokaltzat jotzen da kanpoaldeko ingurumenaren bidez igorlearen eta hartzailearen artean ez denean zarata-transmisiorik gertatzen. Zarata kanpoaldeko ingurumenaren bidez transmititzen den gainerako kasuetan, 21. artikuluan adierazitako balioak bete beharko dira.

20. ARTIKULUA Zarata-maila jardueraren kanpoaldean



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

- Jarduera berri guztiek ezarri beharko dituzte baliabide eta neurri egokiak, indarrean dagoen araudiak (213/2012 Dekretuak) zehazten dituen kanpoalderako kalitateko balio-helburuak ez gainditzeko. Honako hauek dira, zehazki:

a) Egungo eremu urbanizatueta:

Area akustiko mota		Zarata-indizeak		
		Ld	Le	Ln
E	Osasun-, irakaskuntza- eta kultura-alorreko lurzorua nagusi izanik, kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia eskatzen duten eremuak	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi den eremuak	65	65	55
D	Ordenantza honetatik kanpoko hirugarren alorreko erabilerako lurzorua nagusi den eremuak	70	70	65
C	Jolas- eta ikuskizun-erabileretarako lurzorua nagusi den eremuak	73	73	63
B	Industria-erabilerako lurzorua nagusi den eremuak	75	75	65

b) Hirigintza-garapen berriko eremuetan, hirigintza-erabileretarako birkalifikazioen kasuan ere barnean hartuta, 5dBAko kalitate-helburuak izango dituzte kanpoaldean. Egungo eremu urbanizatueta baino balio zorrotzagoak, beraz.

21. ARTIKULUA Aire-zaratarako eta inpaktuen zaratarako isolamendua aldameneko lokalen artean

- Kaltetuena den esparru babestuaren (edota, hala bada, esparru bizigarriaren) eta bertikalki edo horizontalki aldamenean duen jarduera-esparruaren arteko aire-zaratarako gutxieneko isolamendu akustikoa, DnT,A (100 eta 5KHz bitartean kalkulatur), honako balio hauek baino altuagoa izango da:

3. TAULA

Bizitegiarako hiri-lurzoruan kokatutako jarduera berrietan, aldameneko lokaletarako transmisioa dutenetan, ezarri beharreko gutxieneko eskakizunak			
Soinu-igorpenaren muga (dBA)	Aire-zaratarekiko gutxieneko isolamendua (DnT,A) Eguneko ordutegia	Aire-zaratarekiko gutxieneko isolamendua (DnT,A) Gaueko ordutegia	Inpaktu-zarata estandarizatu gehienezko presio-balioa (L'n,Tw)
< 85 dBA	60 dBA	65 dBA	40 dB
90 dBA	65 dBA	70 dBA	40 dB
95 dBA	70 dBA	75 dBA	40 dB

- Kaltetuena den esparru babestuaren (edota, hala bada, esparru bizigarriaren) eta bertikalki edo horizontalki aldamenean duen jarduera-esparruaren arteko inpaktu-



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, DnT,A (100 eta 5KHz bitartean kalkulatuta), 1. ataleko taulan zehaztutako balioak baino txikiagoa izango da.

3. Soinu-igorpenaren mugak (dBA-tan) jarduera sailkatuta dagoen Taldearen arabera finkatuko dira, eta ez dituzte inolaz gaindituko 1. ataleko taulan adierazitako balioak.
4. 07:00 eta 23:00 bitartean eguna dela joko da eta 23:00 eta 07:00 bitartean, berriz, gaua.

22. ARTIKULUA Aldameneko lokaletara zarata transmititzen duten jardueren mugako balioak betetzen direla egiaztatzea.

1. Ebaluazio-indizea adierazten duen lagin-denboran neurtutako balio batek ere ez ditu gaindituko Ordenantza honetako 20. artikularen 4. ataleko 2. taulan finkatutako balioak.
2. Urteko batez besteko balio batek ere ez ditu gaindituko Ordenantza honetako 20. artikularen 4. ataleko 1. taulan finkatutako balioak.
3. Eguneko balio bat ere ez da izango Ordenantza honetako 20. artikularen 4. ataleko 1. taulan finkatutako balioak baino 3dbA altuagoa.
4. Ebaluazio-indizea adierazten duen lagin-denboran neurtutako balio bat ere ez da izango Ordenantza honetako 20. artikularen 4. ataleko 1. taulan finkatutako balioak baino 5 dBA altuagoa.
5. Jardueren ikuskapenaren ondorioetarako, arian den jarduera batek dagozkion muga-balioak betetzen dituela joko da 212/2012 Dekretuaren II. Eranskinaren arabera ebaluatutako indize akustikoen balioek artikuluko honen 1., 3. eta 4. paragrafoetan adierazitakoa betetzen dutenean.
6. Lizentzia eta baimena eskuratzeko eta, ondoren, aurretiko komunikazioaren edota erantzukizunpeko adierazpenaren pean dauden jarduerak betetzen direla egiaztatzeko ondorioetarako, onetsitako erakunde batek emandako txosten bat eman beharko du jarduera sustatzen duen pertsonak edo erakundeak, 20. artikuluko 4. ataleko 1. taulako eta 22. artikuluko 1. ataleko 3. taulako balioak betetzen direla egiaztatzeko (azkenean aipaturiko 3. taulari dagokionez, gutxieneko muga-baliotzat ulertu behar dira).



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

7. Aurreko paragrafoak aipagai dituen erakunde gaituek honako arau hauek bete behar dituzte: UNE EN ISO 140-4:1999, «eraikinetan eta eraikuntza elementuetan isolamendu akustikoa neurtzea». 4. zatia: «lokalen arteko aire-zaratarekiko isolamendua in situ neurtzea»; UNE EN ISO 140-7:1999: «eraikinetan eta eraikuntza-elementuetan isolamendu akustikoa neurtzea». 7. zatia: «lurzoruen inpaktu-zaratarekiko isolamendua in situ neurtzea»; urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren IV. eranskina edota bera ordeztzen duten arauak.

23. ARTIKULUA Ekipamendu mugatzailea/erregistratzailea

1. Musika-ekipamendu guztiek ekipamendu mugatzailea/erregistratzailea izango dute, gutxienez honako ezaugarri hauekin:
 - a. Frekuentzia-bandak mugatu behar dituzte.
 - b. Soinu-kate osoan esku hartu behar dute.
 - c. Egiaztatzeko barne-sistema bat eduki behar dute, saio bakoitzaren hasieran soinu-instalazioan egindako manipulazioak eta aldakuntzak antzemateko.
 - d. Mikrofono bat eta saio bakoitzean lokal igortzailean egon diren soinu-mailak biltegiratzeko erregistro sonografiko bat eduki behar dute. Datu horiek gutxienez lau (4) hilabetez gorde behar dira.
 - e. Pasahitz bidezko sarbide-sistema bat eduki behar dute, hasierako konfigurazioa aldatzea galarazteko eta, aldatuz gero, ekipamenduaren barneko memorian aldakuntza erregistratuta geldi dadin.
 - f. Lokalean dauden soinu-mailak eta barruko memorian biltegitratutako datuak denbora errealean urrunera igortzeko sistema bat eduki beharko dute.
 - g. Soinu-mailak, aldian aldiko ikuskapenak eta azken sarbideen erregistroak euskarri fisiko egonkor batean biltegitratuko dira, tentsio-etenen ondorioz ez jasateko.
 - h. Udal zerbitzu teknikoek biltegitratutako datuak eskuratu ahal izateko sistema bat egongo da ezarrita, datuok aztertu eta ebaluatzeak aukera izan dezaten.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

2. Neurtutako isolamendu akustikoekin gehi frekuentzia banda bakoitzean 3 DB-ko zaintza-guarda batekin ezarriko da neurgailua.
3. Neurtu ez badira, 100Hz-tik beherako bandetako isolamendu akustikoak konfiguratzean, arreta egingo da 100 Hz-ko isolamendua baino 2 dB txikiagoak izan daitezen zortzidun-hereneko banda bakoitzean.
4. Soinu erreproduzioko/anplifikazioko ekipamendurik (eta, beraz, mugagailua/erregistragailua ezartzeko derrigorrik) eta 42 hazbetetik gorako ikus-entzunezko sistemarik ez duten jarduerak 75 dBA-ko soinu-igorpena izango dute gehienez.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

VIII. KAPITULUA ARAUBIDE JURIDIKOA

24. ARTIKULUA Instalazio berrietarako dokumentazioa

1. Alkate jaunari zuzendutako idazki baten bidez aurkeztuko da eskaera. Honako hauek jasoko dira bertan: eskatzailearen izen-abizenak, NANa eta telefonoa, eta jarduera ezarri nahi den lekua.

Eskatzaileak zer eginkizun duen adierazi beharko da argi eta garbi: beraren izenean edo beste norbaiten izenean ari den; bigarren kasuan, eskuordetza egiaztatu beharko du.

2. Eskaerarekin batera teknikari gaituak idatzitako eta sinatutako proiektu teknikoa atxikiko da, dagokion Elkargo Profesionalaren bisarekin. Proiektu teknikoak honako agiri hauek izango ditu.

2.1. Oroitidazkia, eta barnean:

a) Jardueraren deskribapena:

- Jardueraren ezaugarriak (edukiera, elikagaien taldea eta abar).
- Ezarri beharreko makineria, haren mota eta ezaugarriak, eta makina bakoitzaren zaldi-potentzia.
- Lokalaren azalera osoa eta bera osatzen duten aretoetako bakoitzarena (komunena, aldagelena, biltegiena eta abar).
- Zaraten eta bibrazioen igorpena murrizteko proposatzen diren baliabide eta sistema zuzentzaileak, eta soinu-maila onargarria lortuko dela bermatzeko justifikazio-kalkuluak.
- Keak, gasak eta usainak arazteko eta kentzeko prozedura.
- Hondakin-urak eta hondakin solidoak husteko sistema.
- Instalazio higieniko-sanitarioak.

b) Eraikingintzako Kode Teknikoan suteen aurkako segurtasunari, erabilera-segurtasunari, irisgarritasunari eta zarataren babesari buruzko oinarritzko dokumentuak (SI, SUA, HR) betetzen direlako justifikazioa.

c) Hala badagokio, Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako Poliziaren Erregelamendu Nagusia betetzen delako justifikazioa.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

- d) Irisgarritasuna sustatzeari buruzko 68/2000 Dekretuaren justifikazioa.
- e) Behe-tentsioko Erregelamenduari buruzko 842/2002 Errege Dekretuaren justifikazioa.
- f) Eraikinetako Instalazio Teknikoen Erregelamenduari buruzko 1027/2007 Errege Dekretuaren justifikazioa.
- g) Zarataren igorpen-mailari, kontrolari eta kuantifikazioari buruzko 171/1985 Dekretuaren eta Zarataren 37/2003 Legearen eta 213/2012 Dekretuaren justifikazioa.
- h) Eskatzailearen konpromiso egiaztatua, jendaurreko Ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzen dituen 10/2015 Legea eta ordutegi publikoei buruzko 296/1997 Dekretua, 210/1998 Dekretua, 36/2012 Dekretua eta 14/2014 Dekretua eta berorien aldakuntzak betetzen dituela adieraziz.

2.2 Eskalan egindako planoak, gutxienez honako informazio hau jasoko dutenak:

- a) Jardueraren kokalekua, 1:5.000 eskalan.
- b) Etxe-uhartea, 1:1.000 eskalan. Kartografia ofizialaren kopia izango da eta bertan adieraziko da zer eraikinetan ezarri nahi den jarduera.
- c) Banaketa-solairuak, 1:50 eskalan. Bertan zehaztuko da makineria guztia non ezarriko den eta non kokatuko diren suteen aurkako baliabideak, bai eta larrialdietarako eta seinaleztapeneko argiteriaren kokalekua eta ezaugarriak ere.
- d) Hala badagokio, lokalaren edo lokalen zonakatzea, DB-SI kode-tekninkoa betetze aldera.
- e) 1:50 eskalan egindako sekzioak, justu goiko eta beheko solairuekiko jarduerak izango duen kokalekua zehazteko, eta jarduerak solairu bat baino gehiago erabiliz gero, horietako bakoitza zertarako erabiliko den. Lokalaren puntu bakoitzean egongo diren altuera libreen kotak ezarriko dira sekzioetan, lurzorutik sabaira, behin instalazioak eta neurri zuzentzaileak ezarri ondoren.
- f) Fatxadaren altxaera 1:50 eskalan, aldameneko lokalak eta justu goiko solairurako tarteak ere kontuan hartuta.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

- g) Proposatutako neurri zuzentzaileetarako erabaki diren eraikuntza-irtenbideen xehetasuneko planoak, 1:20 eskalan.
- h) Elektrizitateko, iturgintzako, saneamenduko, aireztapeneko, aire girotuko eta aire-girotze orokorreko instalazioen eskema, 1:50 eskalan.

2.3 Gainera, honako separata hauek ere bilduko ditu:

- a) Ordenantza honetako 1. artikuluan jasotako sailkapenaren arabera, jarduera zehatz hori zein taldetan sailkatu behar den, eskatzailearen ustez (tramitazioaren ondoren beste talde batean sailkatzeko aukera egongo da).
- b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emateko agiriaren fotokopia.

25. ARTIKULUA Lizentziak aitortzea

1. Eskaerarekin batera datorren dokumentazioan zerbait falta bada, eskatzaileari 15 eguneko epea emango zaio hutsak betetzeko. Epe horretan hala egiten ez badu, asmoan atzera egin duela jo eta espedientea artxibatu egingo da.

26. ARTIKULUA Lizentzien titulartasuna aldatzea

1. Udalari derrigorrez jakinarazi behar zaio jardueraren titulartasuna eskualdatu edo aldatzen bada. Idazki horretan derrigorrez adierazi beharko da titular berriak zein Taldetan kokatu nahi duen jarduera edo establezimendu zehatz hori.
2. Jakinarazpenarekin batera atxikiko dira egungo jardueraren lizentziaren erreferentzia, eta aurreko titularrak eskualdatzea onartzen duela eta leku berean jarduera hori egiteari utziko diola egiaztatzeak agiria.
3. Eskaerarekin batera, halaber, soinu-igorpenak sortzen dituzten aparailuen kopurua, mota eta ezaugarriak ere gehitu beharko dira.
4. Orobat, eskaera egiteko unean lokalak duen aire-zaratarako eta inpaktu-zaratarako isolamenduaren egoera, pertsona edo enpresa gaitu batek sinatuta.
5. Zarata-igorpene onartutakoa baino altuagoa bada, halakoak saihesteko behar diren neurri guztiak hartu beharko dira.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

27. ARTIKULUA Betetzea eta egiaztatzea

1. Jarduera baimendu eta gero, ez da irekiera-lizentzia eskuratu arte abian ipiniko. Hori baino lehenago, baina, alor horretako udal teknikariak ikuskaritza-bisita egin ahal izango du, aurkeztutako proiektua eta jarduera-lizentzian eskatutako neurri zuzentzaileak behar bezala bete direla egiaztatzeko.
2. Ondorio horretarako, instalazioa burutu eta gero, ikuskaritza egiteko eskatuko dio jardueraren titularrak Udalari. Eskaera horrekin batera txertatuko du obra-zuzendariak sinatutako egiaztagiria, lanak burututa daudela eta proiektuaren aurreikuspen guztiak eta jarduera- eta obra-lizentzian agindutako baldintza guztiak bete direla dioena.
3. Halako instalazioen jabeek, arduradunek edo titularrek derrigorrez laga behar diete instalazioetan sartzen udal ikuskatzaile eta agenteei, halakorik eskatzen dieten guztietan. Dena dela, eta hala nahi badute, ikuskapenak eta egiaztapenak ikusteko aukera izango dute, eurek aukeratutako teknikari batek lagunduta.
4. Titularrak aurreko paragrafoan aipaturiko derrigorrari uko egin eta jarduera desagoki dabilelako salaketak egiaztatzeko aukera galaraziko balu, jarduera desagoki dabilela joko da eta arau-hausteagatiko edo neurri zuzentzaileak ez ezartzeagatiko zigor-espedientea tramitatzen hasi, horretaz gain beste eginbide batzuk egiteko aukerari uko egin barik.
5. Ordenantza honen pean dagoen jardueraren edo instalazioaren batean funtzionamendu okerra igarritz gero, pertsona fisiko edo juridiko guztiek dute egoera Udalaren aurrean salatzeko aukera.
6. Udal funtzionarioek lokalak Ordenantza honetan eta xedapen osagarrietan jasotakoa betetzen ez duela egiaztatu ondoren, akta jaso eta interesdunari horren berri emango diote. Ondoren, hamar (10) eguneko epea izango du egokitze jotzen dituen alegazioak aurkezteko. Egindako jarduketak ikusirik, udal organo eskudunak beharrezko neurri zuzentzaileak aginduko ditu, eta horiek ezartzeko gehienezko epea ere zehaztuko du.
7. Aurreko puntuan adierazitako ebazpenean, eragozpenak, trabak eta kalteak eragin dituen instalazioaren erabilera eta funtzionamendua aldi batez eteteko edo erabilera aldi batez galarazteko aukera ere egongo da.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

28. ARTIKULUA Tolerantzia-araubidea

Ordenantza honen eraginpean egonik, bera indarrean sartu aurretik erregularitasunez abian ziren establezimenduak, ordenantzaren aginduak betetzen ez dituztenak, plangintzaren kontrakotzako egoeran geratuko dira. Horrenbestez, eta oro har:

1. Debekatuta dute lokalaren bolumena, azalera edo erabilera-intentsitatea handitzea.
2. Nolanahi ere, Ordenantza indarrean sartu baino lehenago funtzionamendu normala egiaztatu ahal duten lokaletan (*hirugarrenei kalterik eragiteagatik salaketarik ez dutenetan*), honako jarduketa hauek egin ahal izango dira:
 - a) Egokitze-, konpontze- eta mantentze-lanak.
 - b) Lokalaren bolumena edo azalera handitu barik, zati bat edo osorik Ordenantza honen eskakizunetara egokitzera bideratutako obra eta instalazioak.
 - c) Lau Taldeetako jarduerak egiteko erabiltzen diren eta elkarren aldamenean dauden bi lokal edo gehiago —guztiak ere dagokien lizentziarekin— bat egiteko lanak, betiere emaitzako lokalak ordenantza honen eskakizunak betetzen baditu.
 - d) Bestelako lan batzuk ere baimendu ahal izango dira, berdin dio lokalaren azalera handitzea dakarten ala ez, honako helburu hauetakoren bat egiteko bada: *isolamenduari eta intsonorizazioari* buruzko eskakizunetara egokitzeko, *irisgarritasuna sustatzeari* buruzko araudia betetzeko, lokalaren *segurtasun eta ebakuazio-baldintzak* hobetzeko, eta *baldintza higieniko-sanitarioak* hobetzeko. Dena dela, lanen ondorioz gehitutako azalera ez da izango aurreko azalera baino % 30 handiagoa, eta ez da onartuko gerora gehiago handitzea.
3. Plangintzarekin bat ez datozen eraikinetan Ordenantza honi lotutako jarduerak ezartzeko edo gaur egun daudenak handitzeko baimenak ez dira inolaz onartuko baldin eta plangintza burutzeko kostuak garestitzea badakarte.

29. ARTIKULUA Iraungitasuna eta luzapenak.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

1. Ordenantza honen pean dauden establezimenduak eta jarduerak ezartzeko, legeztatzeko, lekualdatzeko edo handitzeko ematen diren udal lizentzia guztiak iraungitzat eta efektu gabekotzat joko dira (aurretiaz interesduna entzun ostean), honako egoera hauetan:
 - a) Lizentzia eman eta sei (6) hilabeteko epean lanak abiarazi ez baditu.
 - b) a) atalean zehaztutakoaren gainetik, baimena aitortzean zehaztutako epean obrak edo instalazioa amaitu ez badu.
 - c) Jarduera hiru (3) hilabetez edo hortik gora publikoarentzat itxita mantentzen bada, salbu eta eten hori ez bada arauz agindutako edo baimenen ondoriozko lanen edo instalazioen ondorio zuzena.
2. Lehen hiru suposamenduetan, epearen erdiko luzapena aitortuko da, baldin eta epe hori baino lehen interesdunak eskaera arrazoitua aurkezten badu. Zehaztutako epeak edota, hala badagokio, aitortutako luzapenak, ez diete kalterik egingo ezinbesteko kasuetan sortutako atzerapenei, baldin eta interesdunak behar bezala arrazoitu eta azaltzen baditu.
3. Publikoarentzat hiru hilabetez itxita egotearen ondoriozko iraungitasunaren kasuan, Ordenantza hau indarrean ipini aurretik irekiera-lizentzia zuten establezimendu guztiei ere ezarriko zaie. Kasu horretan, baina, ez da ondorio horretarako neurtuko Ordenantza indarrean ipini aurretik jardun barik emandako denbora.

30. ARTIKULUA Zehapen-araubidea

1. Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas-jarduerari buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legeak, EAEko Ingurumena babesteko martxoaren 27ko 3/1998 Legeak eta ezarri beharreko gainerako legeek xedatutakoak aginduko du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENA.- Ordenantza hau indarrean ipini baino lehenago altuera nahikorik gabeko lokaletan edota udal hirigintza-araudia urratzen duten solairuarteetan egiten diren



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

jarduerak legeztatzeko aukera egongo da, betiere Ordenantzaren aurreikusitako aire-berritzeko mailak eta solairuarteko jarduera jakin horretarako segurtasun-baldintzak egoki bermatzen badira. Lokal eta jarduera horiek Ordenantzaren 29. artikuluan zehaztutako tolerantzia-araubidean kokatuko dira.

BIGARRENA.- Erakunde instituzionalek Ordenantzaren honen peko jarduerak erregularoki egiten badituzte, eta betetzen duten eginkizun soziala kontuan hartuta, legeztatzeko ondorioetarako area mugatuei eta gutxieneko distantziei buruz xedatutakotik salbuetsita geratuko dira. Aitzitik, bete egin beharko dituzte ekipamenduari, segurtasunari, aireztapenari eta intsonorizazioari buruz xedatutako guztia. Lokal eta jarduera horiek Ordenantzaren 29. artikuluan zehaztutako tolerantzia-araubidean kokatuko dira.